

D. HIRI-LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN UDAL ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta zerga horri buruzko beren beregiko Foru Arauan ezarri denarekin bat, honako ordenantza honekin, Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta eskatu du; ehunekoen taula eta aplikatzaileak daitezkeen tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen atalak dira.

2. Artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II.ZERGA EGITATEA

3. Artikulua

1. Zergapeko egitea da zergaldian hiri-lurren balioak izandako gehikuntza, lurren jabetza lur horien gainekoa den eta jabaria mugatzen duen eskubide erreal baten truke eskualdatzen denean.

2. Xede horietarako, ondoko hauek izango dira hiri-lurrak:

a) Hiri-lurzorua eta lurzorua urbanizagarria, antolamenduan horrela adierazita eta sektoretan sartuta dagoena, eta, orobat, antolamendua garatzen duten hirigintzako tresnek urbanizagarri gisa sailkatzen dutena.

b) Era berean, hauek ere hartuko dira hiri-ondasun higieztatzat: zoladura edo espaloia duten lur-zatiak eta, honez gain, estolderia, ur-horniketa, argindarra eta argi-sare publikoa, eta hiri izaeradun eraikuntzek okupaturikoak.

c) Nekazal Legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere honetakotzat hartuko dira, beti ere zatikapen horrek nekazal erabilera hutsaltzen duenean, horrengatik berberen izaeraren aldakuntzarik jaso gabe, honako zerga honetarako ez bada.

III.ZERGAPEAN EZ DAUDENAK

4. Artikulua

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta landa-lurtzat jotzen diren lurren balioaren gehikuntzagatik ez da honako zerga hau ordaindu behar. Zerga hau ordainduko da, berriz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela-eta hiri-lurtzat jo behar diren lurren balioaren gehikuntzagatik; alde batera utzita haren erroldan edo katastroan horrela jasota dauden edo ez dauden.

2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkiotenean ez dago zerga hau ordaindu beharrik, ez eta sozietateak ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituenetan eta ezkontideek ondasun komunak ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkiotenean ere.

Halaber, ezkontza deuseztatu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatuz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago zergaren kargapean, ezkontzaren araubide ekonomikoa dena dela ere. Aurreko paragrafoetan aipatutako balizkoetan, berdin tratatuko dira izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteetako kideek egiten dituzten ekarpenak, adjudikazioak eta eskualdaketak ere.

IV.SALBUESPENAK

5. Artikulua

1. Zerga honetatik aske daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Salbuetsita egongo dira Murtzo Historiko Artistikoaren barruan dauden ondasunen edo interes kulturala aitortu zaien eraikinen transmisioak, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta Euskadiko Ondare Historikoari buruzko uztailaren 3ko 7/1990

Legean ezarritakoa betez, haien jabeek edo eskubide errealeen titularrek higiezin horiek artatzeko, hobetzeko edo berriztatzeko lanak egin dituztela erakusten dutenean. Xede horretarako, kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratutako Eraikuntzen eta Obren gaineko Zergaren ondorioetarako, higiezinaren katastro-balioa egindako obren balioa baino txikiagoa bada, jabeek frogatu behar dute higiezinak artatzeko, hobetzeko edo zaharbertzeko obrak egin dituztela euren kargura.

Idatz-zati honetan ezarritako ondorioetarako, salbuesteko eskabidearekin batera, honako agiri hauek hartu behar dira aintzat:

1. Zergaren xede diren ondasun eskualdatuak murtzo historiko- artistikoaren barruan daudela edo kultura-intereseko ondasuntzat hartu direla ziurtatzen duten agiriak.

2. Obren hirigintza-baimena edo obrak betearazteko agindua.

3. Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren ordainketa gutuna, eta hari dagokion tasa, tramitatu den obra lizentzia dela eta.

4. Obra-bukaerako ziurtagiria.

2. Halaber, balio-gehikuntzak zerga honetatik aske daude, zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsonak edo erakundeak direnean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako toki-erakundeak, eta Autonomia Erkidegoko eta toki-erakunde horietako organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.

b) Zerga aplikatu den udalerrria eta bertako toki-erakunde guztiak, bai eta haietan ari diren organismo autonomoen antzeko zuzenbide publikoko erakunde guztiak ere.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutualitateen eta montepioen kudeaketaerakundeak.

e) Nazioarteko hitzarmenetan edo itunetan zerga honen salbuespena aintzatetsi zaien pertsonak edo erakundeak.

f) Administrazioaren emakida lehengoragarrien titularrak, haiei loturiko lurrei dagokienez.

g) Gurutze Gorrikoak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

h) Irabaz asmorik gabeko erakundeak.

Lurrak eskualdatzean edo jabetza murrizten duten eduki eskubide errealak eratzean edo eskualdatzean, irabaz asmorik gabeko erakunde batek garestitzeko asmoz egiten dituenen, salbuespena lortzeko ezinbestekoa izango da lur horiek Ondasun Higiezin Zergaren gaineko salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak betetzea.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde horiek udalari jakinarazi beharko diote otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16. artikuluko 1. idatz-zatian araututako aukera hautatuko dutela, eta Foru Arau horretarako II. Tituluan zerga araubide bereziari buruz jasotako baldintzak bete beharko dituzte.

V.SUBJEKTU PASIBOAK

6. Artikulua

1. Ondokoak dira zerga honen subjektu pasiboak:

a) Irabazteko xedeekin lurrak eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurrak eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen duen erakundea, edota eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona

b) Kostu bidez lurrak eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurrak eskualdatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen duen erakundea, edo eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

2. Aurreko idatz-zatiko b) hizkiak aipatzen dituen balizkoetan, zergadunaren ordezkotzat joko da lurrak eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 34. artikuluan aipatzen duen erakundea, eta, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisiko bat bada, eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

VI.ZERGA-OINARRIA

7. Artikulua

1. Zerga honen oinarria hiri-lurren balioaren benetako gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez hogeitun urtean metatutakoa.

Zerga-oinarria zehazteko, lurrek sortzapen-unean izandako balioa, artikuluko honetako 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, hartu eta 3. idatz-zatian ezarritakoaren araberrako portzentajea aplikatu behar zaio.

2. Lurrik sortzapen-unean izan duten balioa erregela hauen bitartez kalkulatu da:

Lehen. —Lurren transmisioetan, zerga oinarria ezartzeko, eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauan ezarritako moduan katastro balioak berrikusten ez diren bitartean, balioa ezartzeko honako sistema hauek aplikatu beharko dira, ondorengo lehentasun ordenaren arabera:

a) Lurraren balio erreala, arauz ezarritako gutxieneko balio ezargarria zehazteko arau teknikoak aplikatuz datorrena.

Lurraren gutxieneko balio ezargarria eta eraikuntza desglosaturik ez dagoen erabilaren kasuan, hura erabili ahal izango da, %60ko beherapenarekin.

Interesdunak aitortutako lurraren balioa, Zergaren ondoreetarako, letra honetan ezarritako arauak aplikatzearen emaitzakoa baino gehiago bada, zerga-oinarritzat hartuko da.

Gutxieneko balio ezargarria, zerga honen ondoreetarako, beti ere Bizkaiko Foru Aldundiak ezarriko du, zerga ordaindu beharreko egunean.

Eskualdatutako ondasunen edo eskubideen balioen egiaztapena dela-eta sortzen diren desadostasunak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean ebatzi ahal izango dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Araudia onetsi duen ekainaren 5eko 106/20012 Foru Dekretuan araupetutako perituaren tasazio kontrajarriaren bidez.

Aurreko paragrafoan aipatutako perituaren tasazio kontrajarrira jotzen bada, konturako behin-behineko likidazioa egingo da zerga-oinarritzat subjektu pasiboak aitortutako balioa hartuta. Prozedura amaitutakoan zerga-oinarria aldatuko da eta behin betiko likidazioa egingo da, eta bidezko kopurua eskatu edo emango zaio subjektu pasiboari.

b) Zerga hau ordaindu beharreko egunean, edozein arrazoi dela eta Lurraren gutxieneko balio ezargarria ez duten ondasunen kasuan, lurraren balioa, 1989ko abenduaren 31n indarrean zeuden Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergaren balio indizeen taulak aplikatuz ezarriko da.

c) Zerga honen likidaziorako oinarritzat hartu ahal izango da Ondasun Higiezinari buruzko Zergaren ondoreetarako ezarritako katastro balioa, %60ko beherapenarekin.

Bigarena. —Jabaria mugatzen duten ondasun eskubideak eratu eta eskualdatzean, I. Eranskinean bildutako urteko ehunekoei buruzko laukia, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatu arauak aplikatuz kalkulaturiko esku-bide horien balioa, hari doakiolarik, definituriko balioaren zatiaren gainean aplikatuko da.

Hirugarrena.—Eraikin edo lur baten gainean solairu bat edo gehiago eraikitzeo eskubidea, edo lurraren azpian, azalerako ondasun esku-biderik sortu gabe, eraikuntza egiteko eskubidea Erato edo eskualdatzean, Eranskineko urteko ehunekoen laukia eskualdaketa- eskrituran finkaturiko proportzionaltasun modulua edo, horren ezean, lur-gainean edo lurraren azpian eraikitzeo solairuen azalera edo bolumena eta haiek behin eraikiz gero eraikitako guztizko azalera edo bolumenaren arteko ehunkoa ezartzearen ondorioz lor-tutako, definitu eta hari doakion balioaren zatiaren gainean aplikatuko da.

Laugarrena. —Beharrezko desjabetzapenak daudenean, bildutako urteko ehunekoen laukia lurraren balioari dagokion balioespenaren zatiaren gainean aplikatuko da, lehen arauan definitutako balioa txikiagoa ez baldin bada. Hala gertatzen denean azken horrek lehentasuna izango du balioespenaren aurrean.

3. Ordaindu beharreko unean lurra duen balioaren gainean, aurreko 2. Atalean ezarritakotik eratorria, I. eranskinean ezartzen den urteko ehunkoa aplikatuko da.

Portzentajea zehazteko erregela hauek aplikatuko dira:

Lehen. —Zergaren kargapeko eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza aipatu gehikuntza agerian gertatu den urte kopurua barruan hartzen dituen aldirako udalak ezarritako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da.

Bigarrena. —Sortzapen-unean lurra duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentajea, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentajea eta balio-gehikuntza agerian jarri izan deneko urte-kopuruaz biderkatzetiko emaitza izango da.

Hirugarrena. —Lehenengo aruari jarraiki eragiketa zehatzei aplikatu ahal zaien urteko portzentajea zehazteko, eta, orobat, bigarren aruari jarraiki urteko portzentaje hori zenbat urtez biderkatu behar den finkatzeko, balio-gehikuntza izan den

denboraldiko urte osoak zenbatuko dira soilik; beraz, ez dira kontuan izango urte-zatikiak.

VII.ZERGA KUOTA

8. Artikulua

a) Lursailak edo haien gaineko benetako edozein eskubide eskualdatzen direnean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako zehaztutakoa izango da sortzapeneko balioa.

b) Eskualdaketaren helburu den higiezinaren katastro-balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 18ko 4/2016 Foru Arauan adierazi bezala berrikusi ez bada, lursailen balioa kalkulatzeko orduan arauz xedatutako eta lurzoruari egotzi beharreko gutxieneko balioaren zehaztapenerako arau teknikoak ezartzean sortutako lurzorua benetako balioa hartu beharko da kontuan. Erabileretan, lurzoruari eta eraikuntzari egotzi ahal zaion gutxieneko balioa zatikatuta ez badago, %60ko murrizketa ezarri ahal izango da, betiere, lursailak ez badira, halakoetan ez delako inolako murrizketarik egingo.

c) Lurzorua balioa kalkulatzeko orduan artikulua honetako a) eta b) puntuak erabili ezin badira, 1989ko abenduaren 31n indarrean egondako eta aurrekontuei buruzko osteko foru-arauen bitartez eguneratutako Lursailen Balioaren Gehikuntzaren gaineko Udal Zergako balio-indizeen taulen ondorioz sortutakoak ezarriko dira

VIII.ZERGAREN SORTZAPENA

9. Artikulua

1. Zergaren sortzapena ondoko kasuetan gertatuko da:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostu bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa-egunean gertatuko da.

b) Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean. Sortzapena eraketa- edo eskualdaketa-egunean gertatuko da. Arestian adierazi denaren ondorioetarako, eskualdaketaren datatzat ondokoa hartuko da:

a) Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen denekoa, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo, lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.

b) Heriotza-ziozko eskualdaketetan, sortzailearen heriotzaduta.

2. Baldin eta, epai edo administrazio ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurra edukitzeko eskubide erreala reagiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zergaren itzulketarako eskubidea izango du, baldin eta egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatzen bada. Interesatuek elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko ondoreak daudela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez betetzearen ondorioz adierazten bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

3. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua ondorerik gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea, eta egintza zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldiko abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4. Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketa aurreko ataleko arauari jarraituz eginez gero.

5. Alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalaren bidezko jaraunspenetan, zergaren sortzapena ahala modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura iraungitzeko karietariko bat gertatzen denean gertatuko da.

Alkar-poderosoan edo testamentu egiteko ahalean norbaiti zerga honen pean dauden jaraunspeneko ondasunen gozamina edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata, behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko arauen pean; eta, bestea, behin betikoa, alkar-poderoso edo testamentu egiteko ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-behineko likidazioagatik ordainduko dena konturako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamendunari bihurtuko zaio, bidezkoa bada. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazioa eta alkar-poderoso edo testamentu egiteko ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

IX.ZERGAREN KUDEAKETA

10. Artikulua

Subjektu pasiboek Udalari aurkeztu beharko diote zergagatik dagokien aitorpena, administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera non tributu zerrendako elementua eta kuota zehazteko beharrezko gainerako elementuak azalduko baitira; kuotaren ordainketa aitor-pena aurkezten den ekintza berean gauzatu beharko da.

11. Artikulua

Hurrengo epeetan aurkeztu beharko da aitorpena eta horretatik ateratako kuota ordaindu, zergaren sortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko direlarik:

- a) Bizien arteko egintzetan, epea 30 lanegunetakoa izando da.
- b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea urtebetekoa izando da.

12. Artikulua

1. Aitorpenarekin batera, zergapeko egintza edo kontratua agerrarazteko egindako agiria aurkeztuko da.

2. Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

13. Artikulua

Udal Administrazioak eskubidea du pertsona interesatuei agindeia egiteko eta interesatuak eskatuz gero luzagarria izando den hogeita hamar eguneko epearen barruan, zergaren likidazioari ekiteko bidezkotzat jo ditzakeen dokumentu guztiak eskatzeko; epe horren barruan egindako agindeiari erantzuten ez dietenek, dagozkien arau-hauste eta tributu-zehapenak izango dituzte, baldin eta adierazi diren agiriak aitorpena egiaztatzeke eta likidazioa ezartzeko beharrezkoak badira. Adierazi diren agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatzeke

bitarteko hutsak balira, agindeiari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontuan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

14. Artikulua

11. artikuluan xedatutakoaz at, jarraian adieraziko direnek, Udal Administrazioari jakinarazi egin beharko diote egitate ezargarriaren buruketa, subjektu pasiboen epe berberen barruan:

a) Honako ordenantza Fiskal honetako 6. artikuluaen a) hizkian bildutako kasuetan, beti ere bizien arteko negozio juridikoaren zioz sortarazikoetan, dohaintza-emailea edo ondasun eskubidearen eratzaila edo eskualdatzaila.

b) Aipatu 6. artikuluaen b) hizkiko kasuetan, eskuratzaila edo ondasun-eskubidea bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.

15. Artikulua

Era berean, Notarioek egutegiko hiru hilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barruan, egutegiko aurreko hiru hilabetekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri behar izango dute nahitaez, bakoitzak bere udalari, haiek, dena den, esku hartzaileen izen-deiturak, nortasun agiri nazionala eta helbidea eta, agintzak bil ditzatenetan, zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna ageriko jar dezaten egintza edo negozio juridikoak bilduko dituztelarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin.

Epe berberaren barruan ere jakinaren gainean egon edo izenpeak legeztatzeko aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri behar izango dute. Atal honetan aurreikusitakoa Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorrean ezarritako lankidetzako betebeharraren kalterik gabe.

16. Artikulua

1. Udal Administrazioak aitortu izan ez diren egitate ezargarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 11. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei errekerimedua egingo die aipatu aitorpena egin dezaten, tributu arau haustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.

2. Udal Administrazioak aurreikusitako errekerimenduak bideratuta eta interesatuek dagokien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea izapidetuko da, berak dituen datuekin, dagokion likidazioa eginaz eta, hala balegokio, dagozkion sartze epeak eta errekurtsoen adierazpena azaldurik, tributu arau haustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurreko 7.2 artikuluan xedatu eraginetarako edo Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko Agiridunen gaineko Zerga onartzen duen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

1.a) Gozamen denboralaren balioa, ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdiko 100eko 2a, 100eko 70^a gainditu gabe.

b) Biziarzteko gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren % 70ekoa dela iritziko da gozamendariak 20 urte baino gutxiago dituenen, eta hori gutxituz joango da, gehiagoko urte bakoitzeko 100eko 1aren proportzioan, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.

c) Pertsona juridiko baten alde egindako gozamena, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabe egongo balitz, era-gin fiskaletara, ebazpen baldintzapeko jabetza osoko transmisioztat joko da.

2. Jabetza soileko eskubidearen balioa, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren desberdintasunean konputatuko da. Aldi berean denboralak diren



biziarteko gozamenetan jabetza soila baloratzeko, aurreko bat zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.

3. Erabilera eta bizitoki eskubide errealeen balioa ezartzeko, gozamen denboral edo biziartekoen, kasuen arabera, balorazioari dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zireneko ondasunen balioaren 100eko 75ari aplikatuko zaizkio.

I. ERANSKINA

URTEKO EHUNEKO ALDIA

- a) Urte betetik 5era bitartekoa 3,7
- b) 10 urte artekoa 3,5
- c) 15 urte artekoa 3,2
- d) 20 urte artekoa 3,0

II. ERANSKINA

Karga-tasa:

1. Lurzorua ordenantza honetako 8. artikuluko a) idatz-zatian azaldutako katastro-balioaren arabera balioesten bada, karga-tasa %5,20koa izango da.
2. Lurzorua 8. artikuluko b) idatz-zatian xedatutakoaren arabera balioesten bada, karga-tasa %4koa izango da.
3. Ordenantza honetako 8. artikuluko c) idatz-zatian adierazitakoa ezarri beharko balitz, karga-tasa %30ekoa izango litzateke.

Ordenantza honen aldaketa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera egongo da indarrean, eta indarrean jarraituko du bera aldatu edo indarrrik gabe utzi arte.